

FAMILIA-ELKARGUNEA, ADINGABEEK BEREN GURASOAK IKUS DITZATEN, GAINBEGIRATUTA.

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Arriskuan dauden adingabeak dituzten familiak > Krisi edo zaugarritasun egoeran dauden familiei laguntzea

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa.](#)

Norentzat

Modu traumatikoan banandu diren **bikoteen seme-alabak**.

Kostua

Doako zerbitzua.

Baldintzak

Deribazio judiziala egon behar du.

Zertan datza?

Familia Elkarguneeek aukera ematen dute modu traumatikoan banandu diren bikoteen seme-alabak zaintza ez duen gurasoarekin edo familiako kideekin (aitona-amonak, amona-amonak, anai-arrebak...) elkartzeko ([2.7.3.2 fitxa](#)). Topaketa espazio neutral eta egoki batean egiten da, profesionalen ikuskaritzapean, aldi baterako familia-harremanak errazteko eta bermatzeko helburuarekin. Epaitegitik bideratzen da beti familia-elkargunera.

Norentzat?

- **Modu traumatikoan banandu diren bikoteen seme-alabak**, haien bisita-eskubidea ez

dagoenean bermatuta segurtasun- eta ongizate-baldintzetan.

- Kideen arteko **topaketak errazteko espazio gainbegiratu**a behar duten familiak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua da.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

Epaitegiak bideratu egin behar du Familia Elkargunera sartu ahal izateko.

EAEko edozein udalerritan **errolatuta egotea eta bertan benetan bizitzea**.

Non eska dezaket zerbitzua?

Familia Elkarguneei buruzko edozein galdera egin dezakezu zuzenean **Familia Bitartekaritzako Zerbitzuan**:

Araba

Santa Olaja de Acero, 1 (sarrera: Blas de Otero). 01010 Vitoria-Gasteiz **Telefonoa eta ePosta:**
945 171 125

smfaraba@euskadi.eus

Gipuzkoa

- Larramendi, 1 (sarrera: Prim, 24) 20006 Donostia-San Sebastián
- Gorosabel Zaharra lokala, Rondilla kalea 34B (Tolosa)

Telefonoa eta ePosta:

943 576 208

smfgipuzkoa@euskadi.eus

Bizkaia

Santutxu, 69. 48006 Bilbo **Telefonoa eta ePosta:**

944 277 788

smfbizkaia@euskadi.eus

Informazio gehiago

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

Informazio gehiago:

- [Familia-elkargunea Araban](#)

- [Familia-elkargunea Bizkaian](#)
- [Familia-elkargunea Gipuzkoan](#)

[Kontsultatu informazio osoa](#)